

Jarduera: Rolaren multzoaren analisisa

Xedea: rol-multzo bateko kide esanguratsuak bereizteko aukera ematen du; baita elkarren gaineko iguripenak sakontasunez aztertzeko aukera ere.

Testuingurua: Hainbat hobe rol-multzo bateko kide bat baino gehiago dagoen talde bat bada, hau da, bere definizioan esanguratsuak diren pertsonak badira. Talde bakar batek ere egin dezake (klastroak). Kasu horretan, rol-multzoaren itxura egiten duten taldeak osatzen dira: familiak, ikasleak, irakasleak, administrazioa...

Materialak: Aurretiazko azalpen-orriak eta rolaren iguripenen orriak.

Prozedura:

1. "Rol-multzoa" kontzeptuaren sarrera txikia egiten da.
2. Zuzendariaren rolari buruzko banakako gogoeta egiten da (funtzioak eta zereginak). (I. tresna)
3. Agertu diren zuzendaritzaren eta beste kolektiboen gaineko iguripenak partekatzen dira taldeetan. (II. tresna)
4. Talde bakoitzaren emaitzak azaltzen dira, eta antzekotasunei eta desberdintasunei buruzko eztabaida-prozesuari ematen zaio hasiera.
5. "Arrazoizko" iguripenak aztertzen dira eta iguripen-multzoa osatzeko saioa egiten da.

Tesnak ➡